

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

432/2025 Foru Agindua, abenduaren 17koa . Nekazaritza Zuzendaritzako titularrari eskuordetzea informazio publikoa eskuratzearen arloko eskaerak ebazteko eskumena

Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak 35. artikuluan 1. zenbakian ezartzen duenez, informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ebazteko dituen sailaren titularrak, 32. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera.

10/2023 Foru Araua, martxoaren 15ekoa, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzkoak 58. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik: Arabako Foru Aldundiko organoen titulartasuna duten eskumenak baliatzea Aldundiaren beraren beste organo batzuei eskuordetu ahalko zaizkie. Artikulu berak zehazten du diputatu nagusiak eta foru diputatuak zuzendariei eskuordetu ahalko dizkie bere administrazio eskumenak, aipatutako artikulua bertan aurreikusitakoa salbu. Salbuespen horrek ez dio eragiten hemen hizpide dugun gaiari.

Administrazio arloko izapidetze eta kudeaketan, efikazia, arrazionalizazio eta efizientzia irizpideak kontuan hartu behar izateak gomendatzen du Nekazaritza Zuzendaritzako titularrari eskuordetzea zuzendaritza horretan izapidetzen diren informazio publikoa eskuratzearen arloko eskaerak ebazteko eskumena.

Ondorioz, administrazioaren eraginkortasunaren eta azkartasunaren mesedetan, eta Arabako Foru Aldundiaren gobernu, antolaketa eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauan ezarritako eskuordetze aukeren arabera, eta nire eskumeneko ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Nekazaritza Zuzendaritzako titularrari eskuordetzea bere zuzendaritzan izapidetzen diren informazio publikoa eskuratzearen arloko eskaerak ebazteko eskumena, zeinak araututa baitaude Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauan.

Eskuordetze hori mugagabea izango da, lehenago ez bada ezeztatzen edo goragokoak ez badu bereganatzen esanbidezko ebazpen bidez.

Bigarrena. Eskuordetzea tarteko ematen diren informazio publikoa eskuratzeko eskaeren ebazpenetan esanbidez azalduko da eskuordetzea tarteko eman direla, eta organo eskuordetze emaileak eman izan balitu bezala joko da.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 17a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA